# TICKETBAI ARAUBIDE BEREZI NAGUSIETAN

*<u>Oharra</u>: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.*
*Informazio hau gorabehera, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean, eta zerga aitorpenak aurkeztean, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.*

# BALIOKIDETASUN ERREKARGUA (txikizkako merkataritza)

- BEZa. Aurretik kontuan eduki beharrekoak:
  - Nahitaez aplikatu behar zaie ezarritako baldintzak betetzen dituzten txikizkako merkatariei baliokidetasun errekarguaren araubidean egiten dituzten eragiketetan.
  - ADI: hemengo gakoa txikizkako merkatariak erabili behar du bere fakturan, EZ BERE HORNITZAILEAK; hornitzaileak dagokion gakoa erabili behar du eta baliokidetasun errekargua txikizkako merkatariari jasanarazi behar dio. Txikizkako merkatariak EZ DU JASANARAZTEN BALIOKIDETASUN ERREKARGUA, berari jasanarazten diote.
- TicketBAI faktura jaulkitzea, soilik baliokidetasun errekarguan egindako salmenta horiengatik::
  - BEZaren araubidearen gakoa/eragiketaren gakoa: **51** (baliokidetasun errekarguaren araubideko eragiketak)
  - Fakturaren araberako banakapena: **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "S".**

# TicketBAI fitxategiaren adibidea


```
▼<Claves>
  ▼<IDClave>
     <ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>51</ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>
   </IDClave>
 </Claves>
</DatosFactura>
▼<TipoDesglose>
  ▼<DesgloseFactura>
    ▼<Sujeta>
      ▼<NoExenta>
        ▼<DetalleNoExenta>
           <TipoNoExenta>S1</TipoNoExenta>
          ▼<DesgloseIVA>
            ▼<DetalleIVA>
               <BaseImponible>200.00</BaseImponible>
               <TipoImpositivo>21.00</TipoImpositivo>
               <CuotaImpuesto>42.00</CuotaImpuesto>
               <OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>S</OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>
```

TicketBAI araba álava

# BALIOKIDETASUN ERREKARGUA (txikizkako merkataritza)

- Faktura batean BEZaren araubide desberdinetan egindako zenbait eragiketa. Adibidez: **51 gakoa** (baliokidetasun errekarguaren araubideko eragiketak), gozoki salmenta; **01 gakoa** (araubide orokorreko eragiketak), norberak egindako ogiaren salmenta:

  - BEZaren araubidearen gakoa/eragiketaren gakoa: **51** lehenbizi.

  - Baliokidetasun errekarguaren araubidean dagoen eragiketaren xehetasun lerroaren banakapenean: **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "S".**

  - Araubide orokorrean dagoen eragiketaren xehetasun lerroaren banakapenean: **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "N".**

  - Honelako kasuetan, eragiketako bat gutxienez **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "S"** motakoa izan behar da.

# TicketBAI fitxategiaren adibidea


```
▼<Claves>
  ▼<IDClave>
     <ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>51</ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>
   </IDClave>
 </Claves>
</DatosFactura>
▼<TipoDesglose>
  ▼<DesgloseFactura>
    ▼<Sujeta>
      ▼<NoExenta>
        ▼<DetalleNoExenta>
           <TipoNoExenta>S1</TipoNoExenta>
          ▼<DesgloseIVA>
            ▼<DetalleIVA>
               <BaseImponible>10.00</BaseImponible>
               <TipoImpositivo>4.00</TipoImpositivo>
               <CuotaImpuesto>0.40</CuotaImpuesto>
               <OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>S</OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>
             </DetalleIVA>
            ▼<DetalleIVA>
               <BaseImponible>2.00</BaseImponible>
               <TipoImpositivo>4.00</TipoImpositivo>
               <CuotaImpuesto>0.08</CuotaImpuesto>
               <OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>N</OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>
             </DetalleIVA>
```

# BEZ-AREN ARAUBIDE ERRAZTUA

- BEZa. Aurretik kontuan eduki beharrekoak:
  - Borondatezko araubidea da, baina, uko egin ezean, modu automatikoan aplikatzen da, legez ezarritako baldintzak betez gero:
  - Pertsona fisikoa edo errentak eratxikitzeko araubideko erakundea izatea (erakundea izanez gero, bazkide, erkide edo partaide guztiak izan behar dira pertsona fisikoak)..
  - Araudian ezartzen diren jarduerak egitea.
  - Araudian ezartzen diren mugak ez gainditzea.
  - Baztertuta ez egotea bateragarria ez den araubide batean dagoen jarduera bat egiteagatik (salbuespenak: 20. artikuluko eragiketa salbuetsiak bakarrik egiten diren jarduerak edo PFEZaren ondorioetarako jarduera ekonomikotzat jotzen ez diren ondasun higiezinen errentamenduak).

- TicketBAI faktura jaulkitzea, soilik araubide erraztuan egindako salmentengatik:
  - BEZaren araubidearen gakoa/eragiketaren gakoa: **52** (araubide erraztuko eragiketak)
  - Fakturaren araberako banakapena: **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "S".**

# TicketBAI fitxategiaren adibidea


```
▼<Claves>
  ▼<IDClave>
     <ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>52</ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>
   </IDClave>
  </Claves>
 </DatosFactura>
▼<TipoDesglose>
  ▼<DesgloseFactura>
    ▼<Sujeta>
      ▼<NoExenta>
        ▼<DetalleNoExenta>
           <TipoNoExenta>S1</TipoNoExenta>
          ▼<DesgloseIVA>
            ▼<DetalleIVA>
               <BaseImponible>100.00</BaseImponible>
               <TipoImpositivo>10.00</TipoImpositivo>
               <CuotaImpuesto>10.00</CuotaImpuesto>
               <OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>S</OperacionEnRecargoDeEquivalenciaORegimenSimplificado>
```

TicketBAI araba álava

# BEZ-AREN ARAUBIDE ERRAZTUA

- Faktura batean BEZaren araubide desberdinetan egindako zenbait eragiketa. Adibidez: 52 gakoa (araubide erraztuko eragiketak) eta **01 gakoa** (araubide orokorreko eragiketak)

  - BEZaren araubidearen gakoa/eragiketaren gakoa: **52** lehenbizi.

  - Araubide erraztuan dagoen eragiketaren xehetasun lerroaren banakapenean: **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "S".**

  - Araubide orokorrean dagoen eragiketaren xehetasun lerroaren banakapenean: **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "N".**

  - Honelako kasuetan, eragiketako bat gutxienez **"baliokidetasun errekarguaren araubideko edo araubide erraztuko eragiketa" - "S"** motakoa izan behar da.

# NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZAREN ARAUBIDE BEREZIA

- BEZa. Aurretik kontuan eduki beharrekoak:
  - Borondatezko araubidea da, baina, uko egin ezean, modu automatikoan aplikatzen da, legez ezarritako baldintzak betez gero.
  - Laborantzatik, ustiaketetatik zein harrapaketatik zuzenean produktu naturalak, begetalak zein animalienak, lortzen dituzten nekazaritza, basogintza, abeltzaintza edo arrantza ustiategiei nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatuko zaie produktu horiek hirugarren batzuei eskualdatzen dizkietenean, bai eta ustiategi horien zerbitzu osagarriei ere.
  - **ADI:** araubide honetan dagoen zergadun batek araudi honen barruan dauden eragiketa batzuk egin ditzake eta, aldi berean, araudi honen barruan ez dauden beste batzuk (araubide orokorrekoak zein araubide erraztukoak).

# NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA ETA ARRANTZAREN ARAUBIDE BEREZIA

- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian dagoen salmenta edo zerbitzu baten TicketBAI faktura jaulkitzea :
  - Bezeroa, faktura jasoko duena, enpresaburua bada eta ez badago nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian, eta salmenta dokumentatzeko faktura ordez hartzaileak egindako "konpentsazio ordainagiria" erabiltzen bada: ordainagiria egitean ez dago TicketBAI aplikatu beharrik. Hori gorabehera, araubide berezi honetakoak bakarrik ez diren beste salbuespen batzuk ere aplikatu daitezke (TicketBAIren Araudia onesten duen 48/2021 Foru Dekretuaren 4. artikuluko salbuespena).
  - Bezeroa azken kontsumitzailea bada (partikularra) edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian dagoen beste enpresaburu bat, ezin da erabili konpentsazio ordainagiria eta, beraz, TicketBAI aplikatu behar da faktura egiteko.
  - BEZaren araubidearen gakoa/eragiketaren gakoa: 19 (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian dauden eragiketak).
  - Banakapenean "Ez-zergapekoa" hautatu behar da eta zergapean ez egoteko arrazoian "Ez-zergapekoa, BEZaren Foru Arauaren 7. artikuluagatik. Zergari loturik ez dauden beste batzuk".

# TicketBAI fitxategiaren adibidea


```xml
<Claves>
  <IDClave>
    <ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>19</ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>
  </IDClave>
</Claves>
</DatosFactura>
<TipoDesglose>
  <DesgloseFactura>
    <NoSujeta>
      <DetalleNoSujeta>
        <Causa>OT</Causa>
        <Importe>500.00</Importe>
      </DetalleNoSujeta>
    </NoSujeta>
  </DesgloseFactura>
</TipoDesglose>
```

# ONDASUN ERABILIEN, ARTE OBJEKTUEN, ANTIGOALEKO GAUZEN ETA BILDUMAKO OBJEKTUEN ARAUBIDE BEREZIA

- BEZa. Aurretik kontuan eduki beharrekoak:
  - Borondatezko araubidea da; salmenta bakoitzean hautatu behar da aplikatzen den ala ez. Ezarritako baldintzak betetzen dituztenek soilik aplikatu dezakete, eta araubide berezian sartzen diren salmenta eragiketetan baino ez. Fakturan espresuki eta banaka jasanarazten bada BEZa, horrek esan nahi du araubide honi uko egin zaiola eta araubide orokorra aplikatu dela. Faktura “BEZa barne” egiten bada eta araubide hau aipatzen bada, horrek esan nahi du araubide berezi hau aplikatzea hautatu dela.
  - Araubide berezi hau aplikatzen den guztietan hau agertu behar da fakturan: “ondasun erabilien araubide berezia”.
  - ADI: araubide honetan dagoen zergadun batek araudi honen barruan dauden eragiketa batzuk egin ditzake eta, aldi berean, araudi honen barruan ez dauden beste batzuk (araubide orokorrekoak, esate baterako). Gainera, zerga oinarria mozkin osoaren marjinaren bidez zehaztu daiteke, likidazio aldi bakoitzeko (zigiluak, diskoak, liburuak; BEZaren Foru Arauaren, 137.Bi artikulua). Hori berariaz hautatu behar da.

# ONDASUN ERABILIEN, ARTE OBJEKTUEN, ANTIGOALEKO GAUZEN ETA BILDUMAKO OBJEKTUEN ARAUBIDE BEREZIA

- Ondasun erabilien araubide bereziko faktura jaulkitzea eragiketa bakoitzeko (ez mozkin osoaren marjinaren bidez):
  - BEZaren araubidearen gakoa/eragiketaren gakoa: 03 (ondasun erabilien, arte objektuen, antigoaleko gauzen eta bildumako objektuen araubide berezia aplikatzen zaien eragiketak). Zer den zehaztu behar da (ondasun erabilia, bildumako objektua...).
  - Eragiketaren zenbatekoa: eskualdatutako ondasunaren salmenta prezioa (BEZa barne).
  - Araubide berezi honetan, eragiketa bakoitzaren zerga oinarria honela kalkulatzen da: eragiketaren mozkin marjinatik horren zerga kuota kendu behar da (marjina negatiboa bada, zerga oinarria “zero” da):
  - MOZKIN MARJINA = [(Salmenta prezioa, BEZa barne) – (erosketa prezioa guztira)]
  - ZERGA OINARRIA= [(MOZKIN MARJINA x 100) / (100 + karga tasa)]

# ONDASUN ERABILIEN, ARTE OBJEKTUEN, ANTIGOALEKO GAUZEN ETA BILDUMAKO OBJEKTUEN ARAUBIDE BEREZIA

- Fakturaren araberako banakapenean ZERGAPEAN ETA SALBUETSI GABE (SUBJEKTU PASIBOAREN ALDERANTZIZKATZERIK EZ) adierazi behar da, eta karga tasa egokia aplikatu behar da.
- Adibidea:

*Partikular bati 2.000 € eurotan erositako autoa 5.000 eurotan saldu da. Saltzaileak ez du hautatu BEZaren araubide orokorra.*

*Mozkin marjina 3.000,00 da eta aplikatu beharreko BEZaren karga tasa % 21. Beraz, zerga oinarria 2.479,34 € da (3.000.00:1,21). Gero BEZaren tasaren eremua bete behar da: % 21. Informazio hori EZ DA AGERTUKO BEZEROARI EMANGO ZAION FAKTURAN, baina XML FITXATEGIKO ZERGA INFORMAZIOAN BAI.*

# TicketBAI fitxategiaren adibidea


```
▼<DatosFactura>
   <DescripcionFactura>03 gakoaren proba. REBU</DescripcionFactura>
  ▼<DetallesFactura>
    ▼<IDDetalleFactura>
       <DescripcionDetalle>03 gakoaren proba. REBU</DescripcionDetalle>
       <Cantidad>1.00000000</Cantidad>
       <ImporteUnitario>5000.00000000</ImporteUnitario>
       <ImporteTotal>5000.00</ImporteTotal>
     </IDDetalleFactura>
   </DetallesFactura>
   <ImporteTotalFactura>5000.00</ImporteTotalFactura>
  ▼<Claves>
    ▼<IDClave>
       <ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>03</ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>
     </IDClave>
   </Claves>
 </DatosFactura>
▼<TipoDesglose>
  ▼<DesgloseFactura>
    ▼<Sujeta>
      ▼<NoExenta>
        ▼<DetalleNoExenta>
           <TipoNoExenta>S1</TipoNoExenta>
          ▼<DesgloseIVA>
            ▼<DetalleIVA>
               <BaseImponible>2479.34</BaseImponible>
               <TipoImpositivo>21.00</TipoImpositivo>
               <CuotaImpuesto>520.66</CuotaImpuesto>
             </DetalleIVA>
```

TicketBAI araba álava

# Faktura, azkenean

TicketBAI araba álava

## FAKTURA/FACTURA

| | |
|---|---|
| Saila/Serie | DFA_ |
| Faktura zenbakia/Número de Factura | 92 |
| Jaulkitze data/Fecha expedición | 13/10/2025 |
| Eragiketaren data/Fecha Operación | |
| Mota/Tipo | Osoa/Completa |

| JAULKITZAILEA/EMISOR(A) | BEZEROA/CLIENTE |
|---|---|
| 99999972C - FICTICIO ACTIVO, NUEVOCIUD | 44444444A - A LOPZ, gfgf |
| SAMANIEGO 14 3ª Planta - Servicio de Inspección de Tributos | Avenida del mar |
| 01007 VITORIA-GASTEIZ (ÁLAVA) | 01001 |

Eragiketaren deskribapena / Descripción operación

03 gakoaren proba. REBU

| Describapena Detalle | Kopurua Cantidad | Prezioa Precio € | Dtua Dto € | Guztira Total € |
|---|---|---|---|---|
| 03 gakoaren proba. REBU | 1 | 5.000 | | 5.000,00 |

Egiaztatzeko helbidea Dirección de comprobación https://prepweb.dfa.es/wps/portal/ConsultaCove

Egiaztapen kodea Código de verificación 7NCH-zYP7-MNGs-Gjc7

TBAI-99999972C-131025-LpQZz45N+iNhW-199

**Zenbatekoa, guztira/Importe total** **5.000,00 €**

PROBA MODUAN / DE PRUEBA

Ondasun erabilien araubide bereziari lotutako faktura/Factura sujeta al régimen especial de los bienes usados

Pago por transferencia XXXXXXXXXX
Devolución en plazo maximo 15 días.
Proteccion de datos: xxxxxxxxxxx

***Eragiketaren zenbatekoa 1.000 euro edo hortik gorakoa denez, faktura hori ezin izango da eskudirutan ordaindu (urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. art.)/El importe de la operación es igual o superior a 1.000 euros por lo que esta factura no podrá ser abonada en efectivo (art.7 Ley 7/2012, de 29 de octubre)***

# BIDAI AGENTZIEN ARAUBIDE BEREZIA

- BEZa. Aurretik kontuan eduki beharrekoak:

  - Araubide hau nahitaez aplikatu behar zaie bidai agentziek egiten dituzten eragiketei, baldin eta bidaiariei dagokienez haien izenean badihardute eta bidaia egiteko beste enpresaburu edo profesional batzuek ematen dituzten ondasunak edo zerbitzuak erabiltzen badituzte. Kasu honetan uko egin ahal zaio: bezeroa, eragiketaren hartzailea, BEZaren kenkarirako edo itzulketarako eskubidea daukan enpresaburua edo profesionala bada.
  - Araubide berezi hau aplikatzen den guztietan hau agertu behar da fakturan: “bidai agentzien araubide berezia”.
  - BEZaren araudiko baldintzak betetzen dituzten eragiketei soilik aplikatuko zaie.
  - ADI: araubide honetan dagoen zergadun batek araudi honen barruan dauden eragiketa batzuk egin ditzake eta, aldi berean, araudi honen barruan ez dauden beste batzuk (araubide orokorrekoak, esate baterako).

TicketBAI araba álava

# BIDAI AGENTZIEN ARAUBIDE BEREZIA

- TicketBAI faktura bidai agentzien araubide berezian jaulkitzea, eragiketa bakoitzeko:

  - BEZaren araubidearen gakoa/eragiketaren gakoa: 05 (Bidai Agentzien Araubide Berezia).
  - Araubide berezi honetan, eragiketa bakoitzaren zerga oinarria agentziaren marjina gordina da:
  - MARJINA GORDINA = [(bezeroak ordaindutako prezioa, eragiketaren BEZa kenduta) – (agentziak bidaiariari zerbitzuak emateko eskuratu dituen haren onurarako ondasunen eta zerbitzuen zenbatekoa, BEZa barne)] *Ikusi BEZaren araudian zein diren kendu ezin diren kontzeptuak.
  - ZERGA OINARRIA = [(MARJINA GORDINA x 100) / (100 + karga tasa)]

# BIDAI AGENTZIEN ARAUBIDE BEREZIA

- Fakturaren araberako banakapenean ZERGAPEAN ETA SALBUETSI GABE (SUBJEKTU PASIBOAREN ALDERANTZIZKATZERIK EZ) adierazi behar da, eta karga tasa egokia aplikatu behar da.

- Adibidea:

*Viajes Gasteiz enpresak astebeteko pakete osoa kontratatu du Sevillako erretiratu elkarte batekin: bidaia Sevillatik Gasteizera, hoteleko egonaldia, otorduak zenbait jatetxetan, Artium museoko sarrerak eta txangoak Errioxara.*

*Bidaiarako eskuratutako ondasunak eta zerbitzuak: hoteleko egonaldia: 1.000 + 100 (BEZa); otorduak: 500 + 50 (BEZa); autobusa: 500 + 50 (BEZa); museoa: 100 + 10 (BEZa).*

*Bezeroarekin hitzartutako zenbatekoa, BEZa barne: 3.000*

*Zerga oinarria: marjina gordina = 3000 – (1100+550+550+110) = 690. Marjina gordina zati 1,21 egin behar da zerga oinarria kalkulatzeko: 690/1,21= 570,25.*

*Zergaren kuota: 570,25 x 21%= 119,75.*

TicketBAI araba álava

# TicketBAI fitxategiaren adibidea


```
▼<DatosFactura>
   <DescripcionFactura>proba. 05 gakoa. Bidai agentzien araubide berezia</DescripcionFactura>
  ▼<DetallesFactura>
    ▼<IDDetalleFactura>
       <DescripcionDetalle>proba. 05 gakoa. Bidai agentzien araubide berezia</DescripcionDetalle>
       <Cantidad>1.00000000</Cantidad>
       <ImporteUnitario>3000.00000000</ImporteUnitario>
       <ImporteTotal>3000.00</ImporteTotal>
     </IDDetalleFactura>
   </DetallesFactura>
   <ImporteTotalFactura>3000.00</ImporteTotalFactura>
  ▼<Claves>
    ▼<IDClave>
       <ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>05</ClaveRegimenIvaOpTrascendencia>
     </IDClave>
   </Claves>
 </DatosFactura>
▼<TipoDesglose>
  ▼<DesgloseFactura>
    ▼<Sujeta>
      ▼<NoExenta>
        ▼<DetalleNoExenta>
           <TipoNoExenta>S1</TipoNoExenta>
          ▼<DesgloseIVA>
            ▼<DetalleIVA>
               <BaseImponible>690.00</BaseImponible>
               <TipoImpositivo>21.00</TipoImpositivo>
               <CuotaImpuesto>144.90</CuotaImpuesto>
             </DetalleIVA>
```

TicketBAI araba álava

## Faktura, azkenean

TicketBAI araba álava

### FAKTURA/FACTURA

| | |
|---|---|
| Saila/Serie | DFA_2025 |
| Faktura zenbakia/Número de Factura | 45 |
| Jaulkitze data/Fecha expedición | 21/10/2025 |
| Eragiketaren data/Fecha Operación | |
| Mota/Tipo | Osoa/Completa |

**JAULKITZAILEA/EMISOR(A)**

99999972C - FICTICIO ACTIVO, NUEVOCIUD

214521545454

01007 VITORIA-GASTEIZ (ÁLAVA)

**BEZEROA/CLIENTE**

44444444A - A LOPZ, glgf

Avenida del mar

01001

Eragiketaren deskribapena / Descripción operación

proba. 05 gakoa. Bidai agentzien araubide berezia

| Describapena Detalle | Kopurua Cantidad | Prezioa Precio € | Dtua Dto € | Guztira Total € |
|---|---|---|---|---|
| proba. 05 gakoa. Bidai agentzien araubide berezia | 1 | 3.000 | | 3.000,00 |

TBAI-99999972C-211025-UmgqltLpDBPT-156

**Zenbatekoa, guztira/Importe total** **3.000,00 €**

dYmu-FVwh-tJ3N-YCTc

PROBA MODUAN / DE PRUEBA

Bidaia agentzien araubide bereziari lotutako faktura/Factura sujeta al régimen especial de las agencias de viaje

Transferencia XXXXXXXXXX
15 eguneko epealdia.
Proteccion de datos: xxxxxxxxxx

***Eragiketaren zenbatekoa 1.000 euro edo hortik gorakoa denez, faktura hori ezin izango da eskudirutan ordaindu (urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. art.)/El importe de la operación es igual o superior a 1.000 euros por lo que esta factura no podrá ser abonada en efectivo (art.7 Ley 7/2012, de 29 de octubre)***

TicketBAI araba álava

# ERANSKINA: GAKOA ALDATU – ZUZENDU

- **Bi modu daude:**

1. Norberaren softwarea erabiliz. Zalantzarik izanez gero, galdetu informatika hornitzaileari nola aldatzen den gakoa.

2. Arabako Foru Aldundiaren webguneko BIDALITAKO FAKTURAK KONTSULTATZEA aplikazioa, “Aldatu” aukera. Hona hemen esteka: Bidalitako fakturak kontsultatzea (araba.eus)*(Ver Ikusi aurkezpen honen azken eranskina),*

# ERANSKINA: GAKOA ALDATU – ZUZENDU

1) Fakturaren barruan, klikatu hiru puntuetan eta gakoa aldatzeko aukera zabalduko da :

| JASOTZE DATA | JAULKITZE DATA | SAILA/ZENBAKIA | DESKRIBAPENA | ZENBATEKOA, GUZTIRA | EGOERA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2025/09/23 08:43:24 | 2025/09/23 08:43:03 | DFA_2025 / 42 | bidalketa proba | 60,5 | Jasota | ⋮ |

2) Okerreko gakoaren ordez hautatu gako egokia menu zabalgarrian:

**Fakturaren datuak**

Eragiketaren deskribapena *
ventas

Eragiketaren data

BEZaren araubidearen gakoa *
51 - Baliokidetasun errekarguko eragiketak

TicketBAI araba álava

# ERANSKINA: GAKOA ALDATU – ZUZENDU

## 3) y 4) atalak – BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN ARAUBIDEAN ETA ARAUBIDE ERRAZTUAN SOILIK

3) Zabaldu Banakapenak eta klikatu arkatza:

**Banakapenak**

Banakapen mota ◉ Faktura mota ○ Eragiketa mota

**Zergapeko eragiketa salbuetsi gabe mota**

| SALBUETSI GABEKO FAKTURA MOTA | ZERGA OINARRIA | ZERGA TASA | ZERGAREN KUOTA | BE TASA | BE KUOTA | BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN MARKA (*) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe | 200 € | % 21 | 42 € | % 0 | 0 € | Bai |

4) Klikatu lauki hau:

☐ Baliokidetasun errekarguko edo erregimen erraztuko eragiketa

GORDE UTZI

| SALBUETSI GABEKO FAKTURA MOTA | ZERGA OINARRIA | ZERGA TASA | ZERGAREN KUOTA | BE TASA | BE KUOTA | BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN MARKA (*) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe | 200 € | % 21 | 42 € | % 0 | 0 € | Bai |

# ERANSKINA: GAKOA ALDATU – ZUZENDU

## 5) Gorde




| SALBUETSI GABEKO FAKTURA MOTA | ZERGA OINARRIA | ZERGA TASA | ZERGAREN KUOTA | BE TASA | BE KUOTA | BALIOKIDETASUN ERREKARGUAREN MARKA (*) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe | 200 € | % 21 | 42 € | % 0 | 0 € | Bai |

## 6) Aldaketa egin ondoren aukera hauek agertuko dira behean. Klikatu “bidali aldaketa”:



TicketBAI araba álava

## Likidazio aldi baten amaieran mozkin marjina doitu behar bada egin beharreko fitxategia:

TicketBAI fitxategia, faktura erraztu motakoa (hartzailea adierazi gabe), **BEZaren araubidearen gako berarekin (05)** eta egindako fakturen oinarriak eta kuotak aldian aitortu beharrekoarekin doitzeko behar diren zenbatekoekin.

Honelako fitxategiak egiteko, hasieran AJ letrak dauzkan sail berezia sortu behar da.

Este Doikuntza hori hiruhilekoaren ondoko hilaren 15erako egin behar da. “Eragiketaren data” eremuan doitzen den hiruhilekoko azken eguna ipini behar da. Hala ere, fakturan banakapen bat bakarrik badago eta negatiboa bada, hiruhilekoko azken egunean jaulki beharko da; bestela, faktura egiten den eguneko BEZaren hiruhilekoari egotzi beharko zaio.

*<u>Oharra</u>: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.*
*Informazio hau gorabehera, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean, eta zerga aitorpenak aurkeztean, unean-unean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da..*